

Maite Franco ipuin kontalariak 'Urrezko giltza' ipuina kontatuko du Liburutegian

Gaur 18:00etan hasiko da emanaldia eta bost urte baino gehiago dituzten haurrei zuzendua izango da

A. LARRAÑAGA ORIO

Gaur 18:00etatik 19:00etara bitartean Maite Franco ipuin kontalariak Grimm anaiek idatzitako Urrezko giltza eta beste zenbait ipuin kontatuko ditu Liburutegian. Emanaldia bost urte baino gehiago dituzteen umeei zuzendua izango da.

Kontakizunak euskaraz

Egitasmoak urriatik maiatzera iraungo du eta hilean behin ipuin kontalari batek berak prestatu dituen ipuinak kontatuko ditu liburutegian. Kontakizun guztiak euskaraz izango dira eta bost urte baino gehiago dituzten haurrei zuzenduta egongo dira saioak, gehienbat.

Gauzak horrela, hilabete honetan Maite Francok Grimm anaiek idatzitako Urrezko Giltza ipuinaren bertsio bat eta beste zenbait ipuin kontatuko ditu. Abenduan, berriz, Pello Añorgaren txanda izango da.